

STM

San Telmo Museoa

STM

San Telmo Museoa

LOUISE DAHL-WOLFE



12252n l

"Twins at the beach", 1955, courtesy Staley Wise Gallery, © 1989 Center for Creative Photography, Arizona Board of Regents

Estilo propioarekin - Con estilo propio
Un style bien personnel - A style of her own

ERAKUSKETA - EXPOSICIÓN - EXPOSITION - EXHIBITION
2017/07/18 - 2017/10/01

SAN TELMO MUSEOA • Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia • T: 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus • [@santelmo](mailto:santelmo@donostia.eus) • #STM Louise

STM
LA FABRICA

M

Basilea
Museo de Arte Moderno

CONTRIBUYENTES
COCO CHANEL

Weltkunst
SLIMERO WACO
Mutxa

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza, 1 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 580 F. (0034) 943 481 581 E. santelmo@donostia.eus

www.santelmomuseoa.eus

DK
donostia
kultura

Donostia
Ayuntamiento de San Sebastián

Louise Dahl-Wolfe-ren argazkiak San Telmo Museoan ikusgai urrira bitarte

San Telmo Museoko Laborategian, uztailaren 18tik urriaren 1era arte ikusgai izango dira bere garaiko moda argazkilaritzan berritzale izandako Louise Dahl-Wolferen 100 bat irudi, doako sarrerarekin.

Harper's Bazaar aldizkariko plantillan izan zen bitartean bere irudiak 86 azaletan argitaratuta ikusi zituen argazkilari estatubatuar honen kolorearen erabilera, kokalekuak edo erretratuak aipa daitezke Louise Dahl-Wolfek argazkilaritzari egindako ekarpenen artean, bereziki modako argazkilaritzari. La Fábrica eta Montpellierreko Le Pavillion-en eskutik datorren erakusketa hau Oliva María Rubiok komisariatu du. Estatu Batuetatik kanpo bere bakarkako lehenengo erakusketa da eta Madrilen eta Montpellierren egon ondoren dator San Telmo Museora. Ondoren, Londresko Fashion and Textile Museum-era joango da.

Louise Dahl-Wolfe. Biografia

Louise Emma Augusta Dahl (San Frantzisko, 1895 – New Jersey, 1989), Louise Dahl-Wolfe izenaz ezagunagoa, estatubatuar argazkilari bat da, eta bere garaiko modako argazkilaritza modernizatu zuen.

Norvegiar etorkin senar-emazte batzuen alabetan gazteena izan zen eta, San Frantziskora bizitzera joatean, Kaliforniako Arte Eder Eskolan (egun, San Francisco Institute of Art) ikasteko aukera eman zioten. Han ekin zien bere ikasketei, diseinua, konposizioa, Artearen historia eta kolorearen teoria, besteak beste.

1919an, aita hil zitzaison San Frantziskon, eta atzeratu egin zuen New Yorken barrualdeen dekorazio ikasketak egiteko zuen plana. Seinale elektrikoen diseinatziale lanetan hasi zen. 1921ean, Anne W. Brigman argazkilaria ezagutu zuen. Berarentzat, inspirazio iturri handia izan zen, eta argazkilaritzarekin harremanetan sartu zen.

1923an, adierazpide berriak ikasten jarraitu zuen, eta New York hirira lekualdatu zen. Bertan, barrualdeen dekorazioa, diseinua eta arkitektura ikasi zituen. 1924an, Beth Armstrong-en laguntzaile lanetan hasi zen, Armstrong, Carter & Kenyon San Frantziskoko barrualdeen dekorazioko konpainiakoa.

1926an ama hil ondoren, Europara eta Tunisiara bidaiatzea erabaki zuen Consuelo Kanaga bere adiskidearekin, *San Francisco Chronicle*-ko argazkilari. Tunisiara egindako bidaian, Meyer (Mike) Wolfe eskultorea ezagutu zuen, eta harekin ezkondu zen 1928an. Biek elkarri lagundu zioten, eta elkarren ibilbide profesionalaren eragin zuten; senarrak Louiseren modako argazkien atzealde ugari eraiki zituen. 1930ean San Frantziskora itzuli zen eta, bertan, Edward Weston eta Dorothea Lange ezagutu zituen, baita argazkilari profesionala bihurtu ere, barrualdeen dekoratzaileek diseinatutako gelei argazkiak ateratzera dedikatuta.

Senarrarekin Gatlinburg-Tennesseeera lekualdatu zen 1932an eta, han, Mendi Ketsu Handietako biztanleen erretratuak egin zituen. Frank Crowninshield editoreak erretratu horietako bat argitaratu zuen, *Mrs. Ramsey, Vanity Fair*-eko azaroko zenbakian, 1933an. Beste batzuk 1937ko Arte Modernoko Museoan egindako argazkilaritzaz erakusketa kolektiboan erakutsi ziren.

1933an, New York hirira lekualdatu zen, eta han eman zuen denbora 1960 arte. 1936an, argazkilari lanetan sartu zen *Harper's Bazaar*-en, eta hurrengo 22 urtean, modari buruzko erretratuak eta argazkiak egin zituen, eta 86 portada eta kolorezko 600 orrialde eman zituzten, baita zuri-beltzezko erretratuak nahi beste. Bere sormena bere ekoizpena bezain boteretsua eta aktiboa izan zen. Carmen Snow editorearekin lan egin zuen, baita Alexey Brodovitch zuzendari artistikoarekin eta Diana Vreeland modako editorearekin ere. Estatu Batu, Hegoafrika, Europa, Afrika, Hawaii eta Karibeko tokietara bidaiatu zuen, eta 1937an lehen esperimentu batzuk egin zituen Kodachromerekin. 1939an, domina bat jaso zuen eta, 1941ean, New Yorkeko *Art zuzendari Club*eko (Zuzendari Artistikoen Elkarteko) sari bat. 1943an, Lauren Bacall egindako argazki bat, *Harper's Bazaar*eko portadan jarria, aktoreesa horren ibilbide profesionalerako gora-jauzia bihurtu zen.

12252n |

1960an erretiroa hartu ondoren, bere obra nolabaiteko ahanzturan geratu zen 1980ko hamarkada arte; orduan, *A Photographer's Scrapbook* bere memoria liburua argitaratu zuen, eta Staley-Wise Galleryk New Yorken erakusketak egitera zirikatu zuen. Ordutik aurrera, Louise eta bere obra aitortza izaten hasi ziren, eta haren inguruko erakusketak egin ziren: The Grey Art Gallery, New York University, New York, 1983; Museum of Contemporary Photography, Columbia College, Chicago, 1985; National Museum of Women in the Arts, Washington, 1987 eta 2009; Fashion Institute of Technology Museum, New York; eta Center for Creative Photography, Tucson, Arizona, 2000.

1989an hil zen New Jerseyn.

Erakusketako testuak

1.-LOUISE DAHL-WOLFE. ESTILO PROPIOAREKIN.

Louise Dahl-Wolfe (San Frantzisko, 1895- New Jersey, 1989) estatubatu argazkilari handietako bat izan zen, eta garai hartako argazkilaritza modernizatu zuen, baita Hollywoodeko erretratua ere. Bere modako irudiak garai hartako beste argazkilari ospetsuenekin lehiatu ziren, adibidez, Edward Steichen, Horst P. Horst, George Hoyningen-Huene, Irving Penn edo Martin Munkácsi, eta beste batzuen baitan eragina ere izan zuten, adibidez, Richard Avedonen baitan.

San Francisco Institute of Arteko bere heziketak, bere anatomia, konposizio, kolorearen teoria eta, bereziki, marrazketa ikasketak, ezin bestekoak izan ziren bere lanerako. Berberak adierazi bezala, aurrez aurreko klase batean biluziak marrazteak izugarri lagundu zion modako argazkilaritzan, jabetu egin baitzen gizon eta emakumeen gorputzek dituzten aldeez, hala forman nola mugimenduan.

1930eko hamarraldian hasi zen argazkilaritzan, 20ko hamarkadaren bukaeran Consuelo Kanaga argazkilariarekin Europatik eta Ipar Afrikatik bidaia bat egin ondoren. Garai horretan, natura hil, biluzi eta erretratuei ateratzen zizkien argazkiak, batez ere Nashville-Tennesseeko biztanleei, Depresio Handiaren unean eta garai hartako ohiko dokumental estiloaz.

Bere argazkilari ibilbidearen gehiena 1936tik 1958ra eman zuen, *Harper's Bazaar* aldizkarian lan egindako urteetan. Bitarte horretan, estatubatu aldizkariak kolorezko 600 argazki, 86 portada eta zuri-beltzezko 3.000 argazkitik gora argitaratu zizkion. Dahl-Wolfek lantalde handi batekin aritzeko zortea izan zuen: Carmel Snow, editore burua; Alexey Brodovitch, arte-zuzendaria; eta Diana Vreeland, modako editorea.

2.- HOLLYWOODKO IZARREN ERRETRATUAK

1938an, *Harper's Bazaar* aldizkariak, lehenengo aldiz, Louise Dahl-Wolfe Hollywoodera bidali zuen zinemako izarren erretratuak egitera. Garai horretan, artean estudioko erretratuak nagusitzen ziren, ikonoak sortzen zitzuten, eta xarma gehitzen, fokuen zein era guztietako ukituen bitartez. Horrek aukera eman zion Hollywoodeko erretratuen bidez esperimentatzeko, argi naturala baliatuz eta erretratutakoak kanpoaldeetan posatzera bultzatzuz. Une horretatik aurrera, Dahl-Wolfe Hollywoodera bidali zuten urtero zinema industria berriko izen handiei erretratuak egiteko.

Aktore ugariri egin zien erretratua, adibidez, Vivien Leigh, Marlene Dietrich, Carole Lombard, Bette Davis, Ginger Rogers, Orson Welles edo Charles Boyer: estudiotik atera zituen eta, egurats gorrian zein argi naturalaz, argazkiak ateratzen zizkien bere Rolleiflex-az. Zinemaren industriak ohikoak zituen erretratu melengak eta artifizialak, aktoreak irismenez kanpoko idoloak eginez, pertsona ospetsuen erretratu soilak bilakatu ziren Dahl-Wolferen eskuetan. 1943an, Betty Bacalli argazkiak atera eta *Harper's Bazaar*ek portadan atera ondoren, Howard Hawks zinema-zuzendariak 17 urteko modelo gazte hori deskubritu zuen, baita kontratu bat sinatu ere harekin. Izena aldatu zion, eta rol bat eman zion bere *To Have and Have Not* pelikulan (*Tener y no tener*; 1944), Humphrey Bogart aktore nagusi zuela. Horrela hasi zuen Bacallek bere aktore ibilbide profesional handia.

3.-MODAKO ARGAZKILARITZA

1936an, Louise Dahl-Wolfe *Harper's Bazaar*era lanera sartu zenean, modako argazkilariaritzaritza artean ernaltzen ari zen eta, beraz, bazegoen berrikuntzarako tarterik. Condé Nastek, *Vogue*ko jabeak, argazkiak sartu zituen Estatu Batuetako modako aldizkarietan, eta Baron Adolph de Meyer, *Vogue* eta *Vanity Fair* aldizkarietarako lanean zebilena, izan zen neurri handi batean gizarteko erretratuak modako argazkilariaritzaritza bihurtzearen bultzatzalea. De Meyer-ek 1922an *Harper's Bazaar*kin bat egin zuen, baina Carmel Snow 1932an heldu zenean, haren modako argazkiak, lausoak, suabeak, dotore apaingduak, neurri handi batean zaharkituta geratu ziren. Lantalde berriaz, aldizkaria *look* berri baten bila jarri zen, emakumeen irudi berri eta moderno bati lotuz.

12252n l

Testuinguru horretan, Dahl-Wolfe aldizkarian sartu zen, eta aukeren unibertsio zabal bat ireki zitzaison. Zuri-beltzezko eta kolorezko modako argazkilariaritzaritza lardaskatu zuen, eta aitzindarietako bat izan zen modako argazkilariaritzaritza argi naturalez eta kanpoaldean egiten, modeloa askotariko tokietan jarriz (Arizona, Kaliforniako basamortua, Miami, Hawaii...) eta urruneko lekuetara eramanet, Ipar Afrikara (Kairuan, Hammamet), Amerikara (Mexiko, Kuba...) edo Europara (España, París, Italia...). Kanpoaldeak *Harper's Bazaar*eko portadetan jartzen hasi ziren, eta jantziak bere berezko testuinguruan egiten zuen distira: hondartzarria, mendia, hiria... Dahl-Wolferen argazkiak, soilak dira konposizioaren aldetik, eta ezin hobetako ziren modeloek erakutsitako Balenciaga edo Dior-en soinekoen purutasun formalarekin. Modeloek era naturalean posatzen zuten, eta emakume modernoaren irudia ematen: librea eta independentea. Emakume horrek bidaiatzen du, irakurtzen, museoak eta arte galeriak bisitatzen, argazkiak egiten, margotzen...

4.-HARPER'S BAZAAR ALDIZKARIKO KOLORETAKO ARGAZKIAK

Louise Dahl-Wolfe trebea zen inondik ere kolorea erabiltzen, eta zerikusi handia izan zuten horretan 1914tik 1919ra San Francisco Art Institutean egin zituen pintura eta kolorearen teoria ikasketek. Aldizkariko koloretako orrialdeak «jai sinfoniko» bat bihurtzeko gai izan zen, Vicki Goldberg-ek adierazi bezala: «Kolore osagarri guztiak harmonizatzeko gai zen, gorri eta berde motelek oboe kontzertu batek halako soinu danbada eragiten zuten. Konbinazio harrigarrienen bitartez lor zitzakeen harmoniak: morea eta siena erre, oliba berdea eta laranja oso argia». *Harper's Bazaar*ek koloretako 600 argazki argitaratu zizkion.

Dahl-Wolfe gustuko zuen lan prozesu osoa kontrolatzea: estudioko diseinutik eta espazioak hautatzetik hasi eta aldizkariaren kuatrikromia bidezko azken inprimaketa arte. Askotan, aldaketak izaten ziren ateratako argazkitik aldizkariaren inprimatutako orrialdeko azken emaitza arte. 1937tik (urte horretan aldizkarirako bere lehen argazkia egin baitzuen) eta, urte horretan bertan, Kodachrome filmaren agerpenak eman zion laguntzaz, Dahl-Wolfe zuzenketak egin zizkien bere proba guztiei, eta inprimatzailearekin lan egin zuen inprimatutako orrialdeak bere ikuspegiarekin zintzo bat egin zezan. Jabetu zen une horretan koloretako argazkigintza, Anton Bruehl-ek *House and Garden* eta *Voguerentzat* egiten zuen lana salbu, aranean, oso oinarrizkoa zela, eta buru-belarri saiatzen zen koloretako argazkiak distira osoz ager zitezen. Kolorearen bere tratamendua oso gustagarria zen garaiko publizitate enpresa batzuentzat, eta 1939an aitorta eman zitzaison domina bat esleitu ziotenean; 1941ean, berriz, New Yorkeko Art Directors Clubeko saria jaso zuen.

5.- BESTE ERRETRATU BATZUK

Erretratua artistak bere ibilbide profesionalean lantzen jarraitu zuen generoa izan zen, eta ez zituen bakarrik Hollywoodeko izarrak izan, maiz mandatuak jasotzen baitzituen hautagai politikoei eta kulturako zein arteko pertsonaiei ere erretratua egiteko. Antzerkigileak, musikagileak, artistak, zinema-zuzendariak, idazleak, poetak, kantariak... pasa ziren bere kamera aurretik, batzuetan banaka, bestetan bikoteka: Jean Cocteau, Colette, Lotte Lenya eta Kurt Weill, Christopher Isherwood eta W.H. Auden, Edward Hopper, Isamu Noguchi, Carson McCullers, André Malraux, Yves Montand... Erretratu horietan, modeloak erosoa daudela sumatzen da, kamera aurrean modu naturalean posatzen dutela.

6.-HASIERAKO LANAK

1930eko hamarkadaren hasieran, Louise Dahl-Wolfek argazkilaritzari heldu zion. Europa eta Ipar Afrikara egindako bidaiatik bueltan egin zuen hori; bidaia hori Consuelo Kanaga bere adiskide eta argazkilariarekin egin zuen, bere ama 1926an hil eta ondoren.

Lehen urte horietan, bereziki landu zituen natura hilak eta erretratuak. Argitaratzen ikusi zuen bere lehen argazkia *Mrs. Ramsey, Tennessee* izan zen, 1932an; *Vanity Fair* aldizkariko 1933ko azaroko zenbakian agertu zen *Tennessee Mountain Woman* izenburuaz, eta artistak 1932an Gatlinburg-Tennesseen ateratako argazkien sail batekoa zen. Dahl-Wolfe hara joan zen bizitza Mike Wolfe senarrarekin hogeita hamarreko urteen hasieran, Estatu Batuak Depresio Handian hondoratuta zebilen une batean eta porrot ekonomikoak eragindako hondamendiaren ondoren identitate nazional berri bat bilatzen saiatzen ari zenean.

Garai horretan, Louise Dahl-Wolfek landa bizitza eta tokiko pobrezia gertutik ezagutzeko parada izan zuen, eta Farm Security Administrationeko argazkilarietik, New Dealean kokatuta, egin zuten era berean atera zizkien argazkiak tokiko herritarrei. Urte horietan, erretratuak indarra jarri, estilo zuzen eta dokumentalean beste argazki batzuk ere atera zituen: *Ophelia, Nashville, Tennessee*, 1932; *Man in Bijou Theater, Nasville, Tennessee*, 1932; edo *Hands on Music, Nashville, Tennessee*, 1932. Irudiotan, tristura, etsipena eta bizi baldintzen gogortasuna darie tokiko herritarrei. Azkenekoa, gainerako hirurekin batera, Beaumont Newhallek aukeratu zuen *The History of Photography 1839-1937* erakusketa tarako, New Yorkeko Museum of Modern Arten 1937an egindakoa.

12252n l

Las fotografías de Louise Dahl-Wolfe se podrán ver en el Museo San Telmo hasta octubre

En el Laboratorio del Museo San Telmo se podrán ver, desde el 18 de julio hasta el 1 de octubre, unas 100 fotografías de Louise Dahl-Wolfe, que modernizó la fotografía de moda de su tiempo. La entrada será gratuita.

Mientras formó parte de la plantilla de la revista *Harper's Bazaar* sus imágenes se publicaron en 86 portadas. La utilización del color, las localizaciones en exteriores y los retratos son algunas de las aportaciones que realizó esta fotógrafa estadounidense, especialmente en el ámbito de la fotografía de moda. Esta exposición organizada por el Museo San Telmo junto con La Fábrica y Le Pavillon de Montpellier está comisariada por Oliva María Rubio. Llega a San Telmo tras haber pasado por Madrid y Montpellier, y posteriormente viajará al Fashion and Textile Museum de Londres.

Louise Dahl-Wolfe. Biografía.

Louise Emma Augusta Dahl, (San Francisco, 1895 - Nueva Jersey, 1989), más conocida como Louise Dahl-Wolfe, es una fotógrafa estadounidense que modernizó la fotografía de moda de su tiempo.

Fue la menor de tres hijas de un matrimonio de inmigrantes noruegos que, al trasladarse a vivir a San Francisco, le dieron la oportunidad de estudiar en la Escuela de Bellas Artes de California (hoy, San Francisco Institute of Art), donde inició en 1914 sus estudios de diseño, composición, historia del Arte y teoría del color, entre otros.

En 1919 falleció su padre en San Francisco y tuvo que posponer sus planes de estudiar decoración de interiores en Nueva York. Comenzó trabajando como diseñadora de señales eléctricas. En 1921 conoció a la fotógrafa Anne W. Brigman, que supuso una gran inspiración para ella, y entró en contacto con la fotografía.

En 1923 decidió continuar aprendiendo nuevas formas de expresión y se mudó a la ciudad de Nueva York, donde estudió decoración de interiores, diseño y arquitectura, así como un curso de verano de arquitectura en la Universidad de Columbia. En 1924 inició su actividad como ayudante de Beth Armstrong, de la firma de decoración de interiores de San Francisco Armstrong, Carter & Kenyon.

Tras el fallecimiento de su madre en 1926, decidió viajar a Europa y a Túnez con su amiga Consuelo Kanaga, una fotógrafa del *San Francisco Chronicle*. Durante su viaje a Túnez conoció al escultor Meyer (Mike) Wolfe y contrajo matrimonio con él en 1928. Ambos se ayudaron e influyeron recíprocamente en sus carreras; sería él quien construiría muchos de los fondos de las fotografías de moda de ella. Regresó a San Francisco en 1930, donde conoció a Edward Weston y a Dorothea Lange, y se convirtió en fotógrafa profesional, dedicada a fotografiar habitaciones diseñadas por decoradores de interiores.

Se trasladó con su marido a Gatlinburg, Tennessee, en 1932, donde realizó retratos de los habitantes de las Grandes Montañas Humeantes. El editor Frank Crowninshield publicaría uno de aquellos retratos, *Mrs. Ramsey*, en el número de noviembre de *Vanity Fair*, en 1933. Otros se incluirían en una exposición colectiva de fotografía que se celebró en el Museo de Arte Moderno en 1937.

En 1933 se mudó a la ciudad de Nueva York, donde permanecería hasta 1960. En 1936 entró como fotógrafa en plantilla de *Harper's Bazaar*, lo que supuso una extraordinaria plataforma para su trabajo. Durante los 22 años siguientes realizaría retratos y fotografías de moda, que se tradujeron en un total de 86 portadas y 600 páginas a color, así como infinitos retratos en blanco y negro. Su creatividad fue tan poderosa y activa como su producción. Trabajó con la editora Carmen Snow, con el director artístico Alexey Brodovitch y con la editora de moda Diana Vreeland. Viajó a localizaciones en Estados Unidos, Sudamérica, Europa, África, Hawái y el Caribe.

12252n l

En 1937 hizo sus primeros experimentos con Kodachrome. En 1939 recibió una medalla y, en 1941, un premio del *Art Directors Club* (Club de Directores Artísticos) de Nueva York. En 1943, su fotografía de Lauren Bacall en la portada de *Harper's Bazaar* serviría de trampolín para la carrera de la actriz.

Tras su retiro en 1960, su obra se sume en un cierto olvido hasta la década de los 1980 en que publica su libro de memorias *A Photographer's Scrapbook*, 1984 y, es animada por Staley-Wise Gallery a exponer Nueva York. A partir de ahí, comienza el reconocimiento y su obra es objeto de exposiciones en The Grey Art Gallery, New York University, Nueva York, 1983; el Museum of Contemporary Photography, Columbia College, Chicago, 1985; el National Museum of Women in the Arts, Washington, 1987 y 2009; el Fashion Institute of Technology Museum, New York y el Center for Creative Photography, Tucson, Arizona, 2000.

En 1989 falleció en Nueva Jersey.

Textos de la exposición

1.- LOUISE DAHL-WOLFE. CON ESTILO PROPIO

Louise Dahl-Wolfe (San Francisco, 1895- Nueva Jersey, 1989) fue una de las grandes fotógrafas norteamericanas que modernizó la fotografía de moda de su tiempo, además del retrato hollywoodiense. Sus imágenes de moda compitieron con las de prestigiosos fotógrafos de la época como Edward Steichen, Horst P. Horst, George Hoyningen-Huene, Irving Penn o Martin Munkácsi e influyeron en otros, como Richard Avedon.

Su formación en el San Francisco Institute of Art, sus estudios de anatomía, composición, teoría del color, y especialmente de dibujo fueron fundamentales para su trabajo. Como ella misma señala, dibujar desnudos en una clase en vivo le ayudó enormemente en la fotografía de moda ya que le hizo consciente de la diferencia entre los cuerpos de hombre y de mujer, tanto en forma como en movimiento.

Comienza a fotografiar en la década de 1930, tras realizar un viaje por Europa y el Norte de África con la fotógrafa Consuelo Kanaga a finales de los 20. En esa época fotografía bodegones, desnudos y retratos, especialmente de los habitantes de Nashville, Tennessee en el momento de la Gran Depresión y en el estilo documental característico de la época.

El grueso de su carrera fotográfica lo desarrolla entre 1936 y 1958, años en los que trabajó en la revista *Harper's Bazaar*. En ese lapso, la revista americana le publicó 600 fotografías en color, 86 portadas y más de 3.000 fotografías en blanco y negro. Dahl-Wolfe tuvo la suerte de coincidir con un gran equipo: Carmel Snow, editora jefe, Alexey Brodovitch, director de arte y Diana Vreeland, editora de moda.

12252n1

2.- LOS RETRATOS DE ESTRELLAS DE HOLLYWOOD

En 1938, la revista *Harper's Bazaar* envió, por primera vez, a Hollywood a Louise Dahl-Wolfe para retratar a estrellas de cine. En esa época seguían imperando los retratos de estudio, que fabricaban iconos y dispensaban glamour a base de focos y todo tipo de retoques. Ello le dio la oportunidad de experimentar también con el retrato hollywoodiense, utilizando luz natural y haciendo posar a sus retratados en localizaciones exteriores. A partir de ese momento, Dahl-Wolfe fue enviada a Hollywood cada año para retratar a los grandes nombres de la creciente industria cinematográfica.

Retrató a numerosos actores y actrices, como Vivien Leigh, Marlene Dietrich, Carole Lombard, Bette Davis, Ginger Rogers, Orson Welles o Charles Boyer, sacándolos del estudio y fotografiándolos al aire libre y con luz natural con su Rolleiflex. Los retratos relamidos y artificiales a los que acostumbraba la industria del cine, haciendo de los actores y actrices ídolos inalcanzables, pasaron a ser, en manos de Dahl-Wolfe, sencillos retratos de personas famosas. En 1943, tras fotografiar a Betty Bacall y aparecer en la portada de *Harper's Bazaar*, la joven modelo de 17 años fue descubierta por el director de cine Howard Hawks, quien firmó un contrato con ella, le cambió el nombre por Lauren y le dio el papel en su película *Tener y no tener* (1944), protagonizada por Humphrey Bogart. Fue el comienzo de su gran carrera como actriz.

3.- LA FOTOGRAFÍA DE MODA

Cuando en 1936 Louise Dahl-Wolfe entró a trabajar en *Harper's Bazaar*, la fotografía de moda estaba todavía en un estado incipiente y, por tanto, quedaba espacio para la innovación. Condé Nast, dueño de *Vogue*, introdujo la fotografía en las revistas de moda americanas y Baron Adolph de Meyer, que trabajaba para las revistas *Vogue* y *Vanity Fair*, fue en buena medida el responsable de transformar el retrato de sociedad en fotografía de moda. De Meyer se había unido a *Harper's Bazaar* en 1922 pero, cuando llegó Carmel Snow en 1932, sus fotografías de moda, vaporosas, suaves, suntuosamente decoradas, se habían quedado en buena medida anticuadas. Con el nuevo equipo, la revista se orientó en la búsqueda de un nuevo *look* acorde con una imagen nueva y moderna de la mujer.

En ese contexto, Dahl-Wolfe entró en la revista y se le abrió todo un mundo de posibilidades. Experimentó con la fotografía de moda en blanco y negro y en color y fue una de las pioneras en hacer fotografía de moda con luz natural y en localizaciones exteriores, situando a las modelos en emplazamientos diversos (Arizona, desierto de California, Miami, Hawái...) y llevándolas a lugares alejados, situados en África del Norte (Kairouan, Hammamet), América (Méjico, Cuba...) o Europa (España, París, Italia...). Los exteriores pasaron a incorporarse a las portadas de *Harper's Bazaar*. La prenda brillaba en su contexto concreto: playa, montaña, ciudad... Sus fotografías, sencillas en lo compositivo, encajaban a la perfección con la pureza formal de los vestidos de Balenciaga o Dior que las modelos lucían. Las modelos posan de forma natural y transmiten la imagen de una mujer moderna, libre e independiente. Una mujer que viaja, que lee, visita museos y galerías de arte, hace fotografías, pinta...

12252n l

4.- LAS FOTOS EN COLOR DE LA REVISTA HARPER'S BAZAAR

Louise Dahl-Wolfe poseía una gran maestría en el uso del color, algo que tuvo mucho que ver con los estudios de pintura y teoría del color que realizó entre 1914 y 1919 en el San Francisco Art Institute. Fue capaz de convertir las páginas de color de la revista en un «festín sinfónico», como señala Vicki Goldberg: «Podía armonizar colores complementarios, haciendo que los rojos y verdes apagados fueran tan sonoros como un concierto de oboe. Podía conjurar armonías con las combinaciones más sorprendentes –violeta y siena quemado, verde oliva y palidísimo naranja». *Harper's Bazaar* le publicó 600 fotografías en color.

A Dahl-Wolfe le gustaba dominar todo el proceso de trabajo: desde el diseño en el estudio y la selección de los espacios hasta la impresión final por cuatricromía de la revista. A menudo se producían cambios entre la toma y el resultado final en la página impresa de la revista. Desde 1937, en que hizo su primera fotografía en color para la revista, y con la ayuda que le proporcionó la aparición del film Kodachrome ese mismo año, Dahl-Wolfe corrigió todas sus pruebas y trabajó con el impresor para controlar que la página impresa se mantuviera fiel a su visión. Fue consciente de que en ese momento la fotografía en color, con excepción del trabajo que Anton Bruehl realizaba para *House and Garden* y *Vogue*, todavía era bastante primitiva y se esmeraba para que las fotografías en color lucieran en todo su esplendor. Su tratamiento del color, muy popular entre algunas de las empresas de publicidad de la época, obtuvo reconocimiento al serle otorgada la medalla en 1939 y el premio en 1941 del Art Directors Club of New York.

5.- OTROS RETRATOS

El retrato fue un género que la artista continuó frecuentando a lo largo de su carrera y que no se redujo a las estrellas de Hollywood, ya que también recibió encargos regulares para retratar a candidatos políticos y personajes de la cultura y del arte. Dramaturgos, compositores, artistas, directores de cine, escritores, poetas, cantantes pasaron por su cámara, a veces de forma individual y otras en pareja: Jean Cocteau, Colette, Lotte Lenya y Kurt Weill, Christopher Isherwood y W.H. Auden, Edward Hopper, Isamu Noguchi, Carson McCullers, André Malraux, Yves Montand... En estos retratos se percibe la comodidad de sus modelos, que posan ante la cámara de forma natural.

6.- LOS PRIMEROS TRABAJOS

A comienzos de la década de 1930, Louise Dahl-Wolfe empieza a dedicarse a la fotografía. Lo hace tras regresar del viaje por Europa y Norte de África que, junto con su amiga la fotógrafa Consuelo Kanaga, había emprendido tras la muerte de su madre en 1926.

En esos primeros años se dedica especialmente al bodegón y al retrato. La primera de sus fotografías que vio publicada fue *Mrs. Ramsey, Tennessee*, 1932, que apareció en el número de noviembre de 1933 de la revista *Vanity Fair* con el título *Tennessee Mountain Woman*, y que formaba parte de un portfolio de fotografías tomadas por la artista en Gatlinburg, Tennessee, en 1932. Allí había ido a vivir junto con su marido, Mike Wolfe, a comienzos de los años treinta, en un momento en que Estados Unidos se hallaba inmerso en la Gran Depresión y trataba de buscar una nueva identidad nacional tras los estragos causados por el fracaso económico.

Durante ese tiempo, Louise Dahl-Wolfe tuvo la oportunidad de conocer de cerca la vida rural y la pobreza del lugar, y fotografió a la gente local a la manera en que lo hicieron los fotógrafos de la Farm Security Administration, englobados dentro del New Deal. Otras fotografías que tomó en esos años, en un estilo directo y documental, haciendo énfasis en el retrato son: *Ophelia, Nashville, Tennessee*, 1932; *Man in Bijou Theater, Nasville, Tennessee*, 1932, o *Hands on Music, Nashville, Tennessee*, 1932. Se trata de imágenes en las que se percibe la tristeza, resignación y dureza de las condiciones de vida de los lugareños. La última, junto con otras tres, fue elegida por Beaumont Newhall para la exposición *The History of Photography 1839-1937*, que tuvo lugar en el Museum of Modern Art de Nueva York en 1937.